

2024-2025EKO PATOJAS PROIEKTUKO BOLETINA


**ENTREAMIGOS
LAGUN ARTEAN**



**PATOJAS
PROIEKTUA**



2024-KO LABURPENA

DIBERTSIFIKATUKO IKASKETAK AMAITUTA

22
DIBERTSIFIKATUKO IKASLEAK

86,36%
EMAKUMEA. GUZTIRA 19.

2024an, 22 ikaslek amaitu dute Dibertsifikatutako mailako ikasturtea. Horietatik **19 emakumeak izan dira (%86,36) eta 3 gizonak (%13,64).**


Kopuru hauek gazte askoren konpromisoa islatzen dute: ikasten jarraitzeko eta euren errealitateak eraldatzeko borondatea dute. Hainbat komunitatetan, batez ere neskatxek uzten dute eskola Lehen Hezkuntza amaitu aurretik, eta, beraz, lorpen hauek aurrerapauso izugarriak dira.

Hala ere, bidea ez da beti zuzena. **Oinarrizko maila amaitu duten bi mutil ez dira ikasketekin jarraituko**; horietako batek ez duelako adin nahikorik nahi duen heziketa teknikoa hasteko. Oinarrizko mailaren ostean, aukera hezitzaileak oraindik ere oso mugatuak dira, batez ere gazteek oztopo ekonomikoak dituztenean edo oso gaztetatik lan egin behar dutenean.

Azpirarratu nahi dugu **neska beka-hartzaile batek beka programa utzi duela beste beka bat jaso duelako**. Hori pozik ospatzen dugu, aukera berri bat delako berarentzat. Era berean, **Lehen Hezkuntzan zegoen haur batek ezin izango du jarraitu programan**, ikasturtea gaingitu ez duelako. Mugimendu hauek prozesuaren parte dira, eta arretaz jarraitzen ditugu, gure laguntza-estrategiak indartzen jarraitzeko.

Istorio bakoitzak Guatemalako hezkuntza-bidearen erronkak eta aurrerapenak erakusten ditu. Guztion artean saiatzen gara neskatxek, mutilek, gazteek eta emakumeek bestelako etorkizun bat amesteko aukera izan dezaten, eta horretarako urrats sendoak ematen ari dira.





2025 IKASTURTE

Aurten 128 ikaslek hasiko dute ikasturtea. Guztira, **106 beka** neskentzat dira, hau da, **%82,81**.

%82,81

BEKA Neska eta emakumeentzat.
GUZTIRA 109.



Ikasturte honen hasieran, **111 beka** mantendu dira eta **17 berri** gehitu ditugu.

		LEHEN HEZKUNTZA		OINARRIZKO HEZKUNTZA		DIBERTSIFIKATUA		GUZTIRA
TALDEAK		NESKAK	MUTILAK	NESKAK	MUTILAK	NESKAK	MUTILAK	
HUEHUETENANGO	IXTAHUACÁN	5	3	8	2	2	2	22
	AJOMAYA	3		14		5		22
SOLOLÁ	CEIBA			7		3		10
	S. L. TOLIMÁN			6		4		10
	CASA DE LA MUJER			3		9		12
	OXLAJUJ E			3		6		9
SACATEPEQUEZ	S. D. XENACÓJ	11	3	6		2	4	26
	SUMPANGO	2	3	4	1	1	3	14
CIUDAD DE GUATEMALA	GUATEMALA	2			1			3
	GUZTIRA	23	9	51	4	32	9	128

RAFA MAÑERUREN OROIMENEAN

Entreamigos-Lagun Artean elkarteko lagun maiteok:

Duela hilabete batzuk, tristuraz agurtu genuen gure Rafa Mañeru lagun maitea, **Entreamigos-Lagun Artean** elkartearen eta zuen babesari esker martxan dagoen proiektuaren sortzaileetako bat. Boletin hau baliatu nahi dugu guztiok elkarrekin omenaldi txiki bat egiteko eta gogora ekartzeko.

Rafa eredugarri izan zen, bai gizatasunean, bai konpromisoan. Bere bizitza osoan, justizia sozialaren aldeko borroka irmoa izan zuen, eta denbora, energia eta bihotza eskaini zizkien gehien behar zuten pertsonen bizitza hobetzeko. Guatemalako herriaren eskubideen aldeko bere lan nekaezinak —batez ere bazterketa eta zaurgarritasun testuinguruetan— arrasto sakon eta iraunkorra utzi du.

Haren ekarpen ugarien artean, Becas Patojas beka-proiektua azpimarratu nahi dugu: hasieratik neska-mutilen hezkuntzarako sarbidea bultzatu zuen ekimena izan zen, aukera berriak irekitzen oztopoen aurrean. Denborarekin, programa hazi eta egokitzen joan da, gero eta arreta handiagoa eskainiz neskatoei, gazteei eta emakumeei, aldaketaren eragile gisa. Horrela, belaunaldiz belaunaldi itxita egon diren ateak zabaltzen jakin du, betiere giza ikuspegi, inklusibo eta eraldatzailearekin. Nesken hezkuntzaren alde egitea askatasuna, justizia eta etorkizuna ereitea da. Eta hori ikuspegi feministatik eta komunitariotik egitea, berdintasun errealerara bidean aurrera egitea da.

Rafari esker —eta zuen guztien babesari esker—, Guatemalako haur askok bestelako etorkizun bat amesteko aukera izan dute. Eta ikuspegi horri esker badakigu hezkuntzaren alde egitea ez dela pertsona bakar bati laguntzea soilik, baizik eta gizarte bidezkoago, libreago eta berdinzaleago bat eraikitzea.

Eskerrik beroenak eman nahi dizkiogu baita bere familiari ere; maitasun, errespetu eta esker onez betetako besarkada bat bidaltzen diegu. Badakigu bere konpromiso hori ahalbidetu zuela, hein handi batean, ingurukoen maitasunak eta babesak.

Jarrai dezagun hezkuntza eraldatzaile eta inklusibo baten alde egiten. Elkarrekin eraiki dezagun mundu bat non patojak, gazteak eta emakumeak izan daitezkeen amesten duten hori.

Eskerrik asko, Rafa, zure ekarpen bikainagatik.

Maitez eta konpromisoz,
Entreamigos-Lagun Artean



HEZKUNTZAREN BIDEZ ETORKIZUNAK EHUNTZEN

29 URTEKO IBILBIDEA GUATEMALAKO HEZKUNTZA-ESKUBIDEAREN ALDE

Becas Patojas proiektua 1996an sortu zen **EntreAmigos-Lagun Artean (EA-LA)** erakundearen ekimen gisa, Guatemalako nesken, gazteen eta emakumeen hezkuntzarako sarbidea sustatzeko. Iaz, erabaki zen ikerketa bat egitea tokian bertan, bekek gaur egun duten eragina eta ezaugarriak jasotzeko, bai Euskal Herrian zein Guatemalan inplikaturako pertsonen ikuspegitik.

Horregatik, ikerketa sozial bat egitea proposatu zen, urte hauetan zehar beka-programaren garapena eta egungo egoera sakon ulertzeko, eta bi lurraldeetan inplikaturako pertsona guztientzako sortzen diren eraginak aztertzeko.

Denborarekin, proiektua sendotu eta zabaltu egin da, herrialdeko hainbat eskualdetan presentzia ezarri, eta beka-emanetan lehentasuna emanez neska eta emakume indigenentzako, genero-arrakala handiena duten eremuetan.

Proiektuaren ezarpen-eremuak:

Programa hainbat Guatemalako eskualdetan garatzen da, bereziki landa-eremuetan, pobrezia eta hezkuntza-desberdintasunaren indize handiak dituztenetan:

1- Sololá (San Lucas Tolimán y Sololá, departamentuko burua):

- Biztanleriaren gehiengoa kakchiquel eta kiché herri indigenakoa da.
- Hezkuntzarako sarbidean arazo larriak daude: azpiegitura eskasa eta laguntza ekonomikorik eza.

“Ez banu bekarik izango, eskola utzi beharko nuke etxean laguntzeko.” (Beka-hartzailea, Sololá)

2- Sacatepéquez (Sumpango y Santo Domingo Xenacoj):

- SDX-ko biztanleriaren %98 kakchikel indigenak dira.
- Sumpango %90 biztanleria maya da.
- Lurraldea hurbilago dago hiriburutik eta La Antigua hiriarekin konektatuta dago.
- Xenacojen, familia askok ez dute nesken hezkuntza lehenesten, eta lan-etxe koetara bideratzen dituzte.

“Nire gurasoek ez zuten inoiz ikasi, eta diote ez dela beharrezkoa, baina nik etorkizun hobea nahi dut.” (Beka-hartzailea, Xenacoj)



3- Huehuetenango (San Ildefonso Ixtahuacán)

- Emakumeen analfabetismo-tasa altuenetako bat duen departamendua da.
- Komunitate batzuetan, nesken hezkuntza ez da lehentasun moduan ikusten, eta horrek ezkontza goiztiarrak areagotzen ditu.

“Erizaintza ikasi nahi nuke, baina hemen ia neskarik ez da horren urrun iristen.” (Beka-hartzailea, Ixtahuacán)

ZU ERE ALDAKETAREN ALDE IZAN ZAITEZKE

PROIEKTUAREN INDARGUNEAK

1. Hezkuntzan eta genero-berdintasunean duen eragina.

- Hezkuntzan genero-arrakala txikitzeko laguntzen du, eta lan-aukerak izateko aukerak handitzen ditu (bermerik gabe, baina aukera gehiago sortuz).
- Beka-hartzaileengan ahalduntzea sortzen du:

“Ikastea gustatzen zait, horrela amak lagundu ahal diot eta ez naiz inoren mende egongo.” (Beka-hartzailea, Xenacoj)

2. Konpromiso maila altua eta kudeaketa altruista.

- Amabitxi eta aitabitxiak borondatez laguntza ekonomikoa ematen dute; eskualde-arduradunek eta beka-batzordeak ere boluntario moduan lan egiten dute.
- *“Badakigu emandako guztia neskengana iristen dela, bitartekaririk gabe.” (Amabitxia, Euskal Herria)*

3. Komunikazio ona eta konfiantzazko harremanak.

- Laguntza-sare eraginkorrak sortu dira beka-hartzaileen, arduradunen eta beka-batzordearen artean.
- *“Gutunak elkarri bidaltzen dizkiogu, baina gustatuko litzaidake erantzun gehiago jasotzea.” (Beka-hartzailea, San Lucas Tolimán).*

ETORKIZUNERAKO ERRONKAK ETA AUKERAK

1. Iraunkortasuna eta belaunaldi-erreleboa:

- Gazte berrien parte-hartze baxua ama eta aiten artean.
- *“Ni jada nagusia naiz eta 15 urte baino gehiago daramatzat laguntzen, baina gazte konprometitu gehiago behar ditugu.” (Aitabitxia, Euskal Herria)*

2. Hautaketa-irizpideak eta proiektuaren hedapena.

- Hautaketa-irizpideak existitzen dira talde guztientzat, baina urtero jasotzen diren eskaera-kopurua dela eta, ezin dira eskaera guztiak ase.
- *“Batzuetan ikusten dut badaudela gehiago behar duten neskak, baina ez dago beka nahikorik guztiontzat.” (Eskualdeko arduraduna, Huehuetenango)*

ONDORIOA

Becas Patojas proiektuak ehunka neska, mutil, gazte eta emakumeren bizitza eraldatu du Guatemalan, hezkuntzarako sarbidea emanez eta etorkizun hobea eraikitzeke aukera eskainiz. Hala ere, oraindik neska askok amesten dute ikastearekin, baina ez dute baliabiderik horretarako.

Pertsona bakoitzak emandako laguntza, proiektu honetan bat egiten duen aliatu bakoitza, ate bat irekitzea da neska batek ikasten jarraitu ahal izateko.

“Ikastea da aurrera egiteko eta nire familiari laguntzeko dudan modua.” (Beka-hartzailea)

Proiektu honek ez du soilik bizitzak aldatzen Guatemalan, baizik eta elkartasun-loturak eta konpromisoak sortzen ditu parte-hartzaileen artean.

Zuk ere aldaaketaren parte izan zaitezke.

Partekatu ekimen hau, zabaldu mezua eta, ahal baduzu, batu. Elkarrekin, neska, gazte eta emakume gehiagok merezi duten hezkuntza eta aukeretara irits daitezten lagundu dezakegu.

“Hezkuntza da ate asko irekitzeko giltza, eta ematen den beka bakoitza ate bat da irekitzen dena.” – Amabitxia, Euskal Herria



GUATEMALA GAUR

HEZKUNTZA GUATEMALAN: IRAKASLEEN ERRESISTENTZIAREN, DEFENTSA KOMUNITARIOAREN ETA ERREPRESIO INSTITUZIONALAREN ARTEAN

2025ean, Guatemalako hezkuntza ezin da ulertu testuinguru politiko zabalagoa kontuan hartu gabe: protesta sozialaren kriminalizazioa, lidergo komunitarioen aurkako errepresioa, prentsa independentearekiko erasoak eta irakasle, ikasle eta komunitate osoei eragiten dien krisi egiturazko bat.

HEZKUNTZA-KRISIA ETA IRAKASLEEN GREBA OROKORRA

Guatemalako hezkuntza-krisiak hainbat dimentsio ditu: estatuaren inbertsio faltak, desberdintasun egiturazkoak, irakasleen prekarietateak eta azken hilabeteetan lurralde osoko irakaskuntza geldiarazi duen lan-gatazkak.

Apirilean eta maiatzean, irakasle antolatuen —batez ere Guatemalako Hezkuntza Langileen Sindikatuaren (STEG) bidez— kaleak hartu zituzten greba orokor batean, soldata duinak, hitzarmen kolektiboaren betetzea eta irakaskuntzarako baldintza duinak eskatzeko. Estatuko erantzuna anbigua izan da: Hezkuntza Ministerioaren aldetik promesa zehaztugabeak eta proposamen konkreturik ez.

Tentsioa areagotu egin zen ekainean, STEGek ez zuenean onartu epaitegi batek emandako agindua klaseak berriz hasteko, eta Konstituzioaren Plazan planton bat mantendu zuen. Estrategia-aldaketa horren ondoren, gobernuak ohartarazi zuen greban dauden irakasleei zigorrak eta soldata-murrizketak ezarriko zitzaizkiela.

“IRAKURRI GEHIAGO GATAZKARI BURUZ”

Krisi honek kolpe bereziki gogorra ematen die landa-eremuetako neskato eta nerabeei, haientzat eskola publikoa ez baita soilik ikasteko gune bat, baizik eta elikaduraren, zaintzaren eta komunitatearen parte-hartze aktiboaren espazio bat ere. Irakasleen grebek, azpiegitura faltak eta gobernuaren utzikeriak genero- eta lurralde-arrakala areagotzen dute, eta neskek hezkuntzarako duten eskubidea —**Konstituzioak eta nazioarteko hitzarmenek bermatua— bete gabeko promesa bihurtzen dute.**

Komunitate indigenetan eta nekazaritzakoetan, neskatilek gainera ezkontza behartuak, etxeko lana eta migrazioa jasaten dituzte, eta horiek guztiek arriskuan jartzen dituzte beren bizitza-proiektuak. Horregatik, **hezkuntza ez da soilik eskubide bat: belaunaldiz belaunaldi luzatzen diren pobrezia- eta desberdintasun-zikloak eteteko bide bakarra da.**

LURRALDEAREN DEFENTSA ETA PEDAGOGIA ANTZINAKOA

Krisi horri gehitu behar zaio hezkuntza-sistemaren ikuspegi etnozentrikoa, komunitateen memoriaren defentsa eta antolakuntza kolektiboa ez direla kontuan hartzen, pedagogia komunitario eta arbasoena baztertuz.

Hala adierazi dute Totonicapángo 48 Kantonamenduetako agintari ancestralek, 2023ko Greba Orokorrean parte hartzeagatik beren liderren kriminalizazioa salatuz. Duela gutxi, gutun bat entregatu zioten presidente Bernardo Arévalori, fiskal orokor Consuelo Porras kargugabetzea eta lider komunitarioen aurkako jazarpen judizialaren amaiera eskatzeko.

“PROTESTAREN KRIMINALIZAZIOA”

Testuinguru honetan, komunikabide alternatiboek, hala nola *Ruda* eta *Prensa Comunitaria*, borroka hauek dokumentatu dituzte, baina aldi berean eraso informatikoak eta mehatxuak jasan dituzte. **Kazetaritza feministak eta komunitarioak funtsezko rola izan dute hezkuntza-eskubideak eta eskubide kolektiboak bistaratzen,** une honetan prentsa askea demokraziaren oinarri nagusietako bat denean. Rudak salatu du nola eraso horiek hezkuntza eta komunitate gaiak jorratzeko lanari eragiten dioten zuzenean.

“HEDABIDE FEMINISTEI ETA KOMUNITARIOEI ERASOA”

Guatemalan jokoan dagoena ez da soilik irakasleen soldata edo ikasgelako pupitreak. **Zalantzan dago zein herrialde-eredu nahi den eta zein hezkuntza mota behar duen.** Gaur inoiz baino gehiago, heziketa defendatzea, baina herriekin loturiko heziketa bat defendatzea, lurralde-borroketa loturikoa, emakume defendatzaileei eta prentsa aske eta komunitarioari loturikoa, bizitza duina, antolaketa kolektiboa eta egia defendatzea da.